

SEPRON

ITSAS SIERPEA




PIZTIEN ERRONKA 2

ADAM BLADE

Miren Ibarluzearen itzulpena

desclée



IZOZTUAK

LAUTADA
NAGUSIAK

Abantia


LANDAK

HUGO
ERREGEAREN
JAUREGIA

HIRIA

ERRINEL

ERREKA





*O*ngi etorri Abantia erresumara! Aduro nauzu, Aduro Azti Ona; Hugo Erregearen jauregian bizi naiz. Ez zara sasoirik onenean iritsi, alajaina...

Antzinako idazkietan jasota dagoenez, halakoren batean arriskuan murgilduko omen da gure erresuma baketsua.

Bada, une hori iritsi da.

Malbel Azti Ilunaren sorginkeria zitalen mendean, sei Piztia -Suzko herensugea, Itsas sierpea, Erraldoi basatia, Zaldi-gizona, Elurretako munstroa eta Sugar-hegaztia- amorratuko omen dira, eta piztiek suntsitu egingo omen dute lehenago babesten zuten lurraldea.

Abantia arrisku bizian dago.

Baina, antzinako idazkietan eroi baten berri ere ematen da. Bertan idatzitakoaren arabera, mutiko batek Piztiak madarikaziotik libratzeko erronkari ekingo dio, gure erresuma gaitzetik atera dadin.

Ez dakigu mutiko hori nor den; baina, heldu da haren unea...

Gure eroi gazteak izango al du erronkari aurre egiteko beste adore eta bihotz! Gurekin bat egin eta zer gertatuko den jakin nahi duzu?

Abantiak agur egiten dizu,

Aduro

SARRERA



Arrantzontzia kulunka zegoen olatu artean. Kalumek soka laxatu zuen, eta bela bildu. Haren aita sarea zabaltzen hasi zen, lanean ari zen artean hagin artetik txistuka.

—Ez dakit zergatik saiatzen garen ere —kexatu zen.

—Ez dugu hilabetez ezer ere harrapatu!

—Badakizu zer dioten... —esan zuen Kalumek—. Itsas sierpeak arrain guztiak beldurtu dituela, eta ihes joanak direla.

Aitak purrustadaka:

—Zaharren kontuak! Dena delakoa ere, ez al zigun ba Itsas sierpeak laguntzen?

Kalumek ingurura begiratu zuen ikaraturik. Itsas azala bare-bare zegoen, ez zuen ezerk apurtzen, hondartzatik haragoko harrizko irla txiki batek ezik.

Sarea batu zutenean, ez zegoen ezer ere barruan.

—Alferrik —esan zuen aitak.

Berriro ere bota zuen sarea Kalumek, eta, sarea uretan barna hondoratzen zen artean, zerbait ikusi zuen arrantzontziaren eta itsasertzaren artean. Ura irakiten ari zela ematen zuen. Haserre bizian, harrotzen hasi zen itsasoa: bitsak eta olatuek gogor jotzen zuten haitzen kontra.

—Begira! —egin zuen oihu, zerbait seinatuz—. Begira, han!

Aitak buelta hartu zuen, baina arrantzontziaren ertzetako bati gogor eutsi behar izan zion, urak gogor astintzen baitzuen ontzia.

Orduan, lepo mehe luzanga baten gainean, burutzar izugarri bat atera zen uretatik.




Kolore orotariko ezkata lodiz eta lanpernaz inguraturik zegoen. Urrezko lepoko bat zuen lepo luzearen inguruan, eguzkipean dirdiraka; lepokotik kate bat ateratzen zen, ur barrenera zihoana, hura ere dirdiratsua.

—Zer da, baina? —oihu betean Kalumen aitak.

Kalumek sokari tira egin zion, sarea bildu nahian; baina, beranduegi zen. Piztiak lepoa

makurtu zuen, eta burutzarra arrantzontzira hurbildu. Kalumek zuzen-zuzen begiratu zien piztiaren begiei; haserre bizian dagoenaren begiak ziren haiek, sutan zeudela zirudien. Izututa, piztiaren matrailezurak zabaltzen ikusi zituen. Letagin luze makurrek arrantzontziaren masta txikitu zuten, eta ur-parrastak euria balira legez erori ziren aitasemeen gainera.



Arrantzontzia guztiz okertu zen;
urak estali egin zuen Kalum. Beldurrez
kuzkurturik, eskuak burura eramane zituen,
eta begiak itxi; itsas munstroaren orroek
oihartzunez betetzen zuten ingurua...



